

Tik Tak

Balorezko Proposamena

Bakardadea gaur egun dagoan arazo latza zein larria da. Izan be, ASEP (Análisis Sociológicos, Económicos y Políticos) erakundearen inkestaren arabera 4 milioi espainiar bakarrik sentiduten dira. Are gehiago, gehienak emakumeak dira eta egoera horretan Internet erabiltzea erabagitzen dabela aitatzten da, bereziki, sare sozialak erabiltzen dabez aisialdiarako eta bakardadea islatzeko modu bezala.

Bakarrik sentidutea hainbat ondorio ekarri leikez:

- Arazo mentalak.
- Errendimendu akademikoaren jaitsiera.
- Suizidioa.
- Emozio negatiboak besteengan erakustea.

Honi aurre egiteko, bakarrik sentidu edo bakarrik dagozan personeei laguntza eskeintzen deutsegu. Modu berean, gustu bardinak edo antzekoak dabezan personakaz harremanetan jartzeko aplikazioa sortu gura dogu. Izan be, askotan egoera personalaren arabera gatxa izaten da gustoko daukaguzan jarduerak egiteko jendea topetea eta azkenean, inguruko personen gustuetara moldatzeko beharra izaten da. Beraz, aplikazio honi esker, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatzen diran bezeroek aisialdian jarduerak partekatuko dabez. Aplikazioaren funtzionamenduari jagokonez, erabiltzaile batek plana igoko dau, planaren eguna eta ordua zehaztuz. Gainontzeko erabiltzaileek, plana ikusterakoan bi aukera izango dabez; alde batetik, jarraian plana burutu dauan erabiltzaileagaz kontaktuan jartzeko aukera eukiko leukie eta beste alde batetik, plana aplikazioan gordeta itzi leukie gustoko dabela adierazi daiten. Lehenengo aukera egokia izango litzateke bezero batek plana egitea argi dauanean; bigarrenak, ordea, ez dau argi joan gura dauan, hortaz, plana gordeko litzateke erabagitzen dan arte. Azkenik, plana burutu dan ostean, erabiltzaileek izandako harremana baloratu beharko litzateke. Modu honetan, erabiltzaile bakotxaren perfilean bestean balorazioak agertuko litzatekez aplikazioan segurtasuna eduki daiten.

Aplikazio hau bideratuta dago gustoko dabezan antzeko plan eta jarduerak egiteko konpainia aurkitu gura daben herritarrentzat.

Jadanik badagoz bikotekide maitasunera bideratuta dagozan aplikazioak personak harremanetan jartzeko, esaterako, Mitic, Badoo, Tinder. Halanda be, aplikazio honek ez dau zerbitzu hori eskeintzen bezeroak edozein motatako planerako, konpainia ez izan ezkerro, konpainia aurkitu leikielako, esaterako, zinemara, kontzertu batera joatea... Horretarako, bezeroei aplikazio bat eskaintzen deutsegu lehen aitaturako edozein plan motarako, Euskadin, konpainia aurkitzeko. Aplikazio honetara hurbilduko dira konpainiak eta bakarrik ez sentitzeak garrantzia handia daualako.

EUSKERA

GAZTELERIA

BEZERDAREN
IZENA

E G

BEZEROA
SAIOA
ITXI



TIK TAK



BILATU




PLANA IGO




PLANAK



KONTAKTUAN
JARRI



MAPA



SARRERA



ORDAINA